

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2022IPLE0007
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA

## 2022-11-29ko UDALEKO OHIKO BILKURA

Albizturren, 2022ko azaroaren 29an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

### BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

### BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

### Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

### AZTERGAIK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2023. URTEKO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENA
4. a.20.(1)\_16 PARTZELAKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
5. EUDEL-EK PROPOSATUTAKO ORDAINSARIEN %1,5EKO IGOERA GEHIGARRIA 2022 URTERAKO
6. AZAROLA GOIKOAKO ERREPIDEAN KANADIENSEAK ERAIKITZEKO LAGUNTZA
7. GOMAIZTEGIN PORTXEA ERAIKITZEKO ESKAERA
8. ARKAIZPE EGURRAK-EKO ZABORRA
9. GALDERA ERREGUAK

### 1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2022-10-18ko akta aho batez onartu da.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

## **2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

2022ko 83 eta 99 bitarteko dekretuen berri eman da.

## **3. 2023. URTEKO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** 2023ko aurrekontuari hasierako onarpena ematea.

**Bigarrena.-** Erakusketa publikoan jartzea 15 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Argitaratuz. Erakusketa publikoko epean ez bada alegaziorik aurkezten, erabakia behin betikotzat joko da beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **4. a.20.(1) 16 PARTZELAKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA**

Albizturko a.20.(1)\_16 partzelako xehetasun azterketa onesteko espedientea bideratzen ari da Udala. Javier Flores Galarza jaunak aurkeztu zuen eta 2022ko urriaren 19ko 83/2022 Alkatetza ebazpenaren bidez hasierako onarpena eman zitzaion. Ondoren, jendaurrean egon zen, hoguei egunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean -2022ko urriaren 25eko 202 zk.-, "El Diario Vasco" egunkarian -2022ko urriaren 28koa-, eta gure udaleko iragarki-oholean argitaratu eta biharamuntik hasita.


Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, espedientera bildu diren agiriak ikusita, bai eta Idazkariaren txosten juridikoa, Udalbatzak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 22.2.c) artikuluan ematen dizkion eskumenak baliatuta, zinegotziek gaia eztabaidatu ondoren aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Albizturko a.20.(1)\_16 partzelako xehetasun azterketa behin betiko onartzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta, erabakian jaso diren hirigintza arauekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratzeko agintzea. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko zaio, batetik behin betiko onarpenari buruzko jakinarazpena; bestetik, behin betiko onartu den hirigintza tresnaren alearen kopia bat, behar bezala legeztaturik, eta hura osatzen duten plano eta agiri guztiak ere bai, Udal Idazkaritzaren eginbidea behar bezala jarrita; eta azkenik, bideratu den espediente osoaren kopia bat, erregistratu eta gordailuan utz dadin.

## **5. EUDEL-EK PROPOSATUTAKO ORDAINSARIEN %1,5EKO IGOERA GEHIGARRIA 2022 URTERAKO**



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, %1,5eko ordainsari-igoera gehigarria baimentzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden urteko ordainsari osoen aldean, Albizturko Udalaren zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat. 2022 urterako ordainsarien igoera osoak ezin du %3,5eko igoera gainditu, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean.

**Bigarrena.-** Erabakia Gipuzkoa ko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **6. AZAROLA GOIKOAKO ERREPIDEAN KANADIENSEAK ERAIKITZEKO LAGUNTZA**

Albizturko Udalak Azarola Goikoako errepidean dauden hainbat langa kentzeko agindua eman du, errepidearen erabilera publikoa oztopatzen dutelako.

Baina langa batzuk baserriko abereek ihes ez egiteko funtzioa betetzen dutenez, beharrezkoa da langan ordezkari kanadienseak eraikitzea, eta obra horrek kostu altua suposatuko du langak ordezkatu behar dituzten herritarrentzat.

Lehendik ere ekonomikoko ez da erraza abereak haztea, baina funtzio garrantzitsua betetzen dute belardien kontserbazio egokirako, eta kostu gehigarri honek zaildu egingo du egoera.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Langen ordezkari kanadienseak eraiki behar dituzten herritarrei kostuaren %50eko laguntza ematea.


**Bigarrena.-** Langak kendu behar dituzten herritarrei jakinaraztea.

## **7. GOMAIZTEGIN PORTXEA ERAIKITZEKO ESKAERA**

Gomaiztegin portxea eraikitzeke baimen eskaera egin dute, baina portxea etxe ondoan dagoen muroan eraiki nahi dutenez (eta ez etxekeko paretan), ez du Albizturko Egurtoki eta Ataripekoen Ordenantza betetzen.

Ordenantza honetan salbuespen aukera jasotzen da, baina oso kasu berezitan eta hautetsiek onartzen badute.

Gomaiztegin portxearen kasuan, portxea ordenantzak jasotakoa betez eraiki daiteke, eta ez da derrigorrezkoa muroan eraikitzea. Horregatik, hautetsien ustez, ez dira betetzen salbuespena aplikatzeko baldintzak.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Gomaiztegin portxea eraikitzeke egin duten eskaera ez onartzea, ez duelako betetzen Albizturko Egurtoki eta Ataripekoen Ordenantza.

**Bigarrena.-** Interesatuei erabakiaren berri ematea.

### **8. ARKAIZPE EGURRAK-EKO ZABORRA**

Arkaizpe Egurra-ek bere zaborra jasotzeko eskaera egin dio Tolosaldeko Zabor Mankomunitateari, baina Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak ezezkua esan dio, industria poligonoetan dauden enpresen zaborrak soilik jasotzen dituztelako, eta gainera, Santa Marinako bidea oso estua denez, beraien kamioiek zailtasunak izango lituzketelako Arkaizpe Egurra-era iristeko.

Irtenbide moduan zaborrak garbigunera eramateko aukera eskaini die (dohainekoa da zerbitzu hau).

### **9. GALDERA ERREGUAK**

- **Eremu publikoaren okupazio desegokiak:** Ekainean banatu zen eremu publikoen okupazio desegokien inguruko bandoa, eta nahiz eta egoera batzuk konpondu diren, oraindik ez dira zuzendu beste batzuk. Udala eremu publikoen okupazio desegokia egiten duten herritarrekin harremanetan jarriko da praktika hau amaitutzat eman dezaten.

- **Peoiaren hautaketa prozesua:** Jose Inaziori ezgaitasuna onartu diotenez, eta bere ordezkapena egiten ari den Jose Ramon aldi baterako langilea denez, komeni da peoiaren hautaketa prozesua ahalik eta azkarren martxan jartzea.

- **Etarte eta Aitzaldeko lurjabeekin bilera:** Urte asko igaro dira Albizturko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zenetik, eta bertan aurrikusitako Etarte eta Aitzaldeko eremuetan etxe berriak egiteko mugimendurik ez dagoenez, bilera egingo da lurjabeekin gaia aztertu eta Udalaren asmoak azaltzeko.

Osoko bilkura, 20:45etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoera gero dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2022ko azaroaren 30ean